



EREÑOTZU

Hitzaldia eta bertso afaria

Udazken Kulturalaren barruan, beste bi ekintza antolatu dira aste honetan Ereñotzun: Luis Mari Zalduaren hitzaldia, *Ereñotzu inguruko historia, toponimia eta sarioiak*, asteazkenean, 19:30etan, eta bertso afaria larunbatean, 20:30etan, Maialen Lujanbio eta Unai Agirrerekin. Txartelak salgai daude Ur Mian eta Irintzin, 25 euroan. ||

HERNANI ERABAKI

Beste hiru bilera, aukeraketa egiteko

Gaur Sorgintxulon egingo da bilera, 19:00etan. Etzi, Haur Eskolan, 19:00etan. Eta ostegunean Biterin, ordu berean. Saio guztietan haurtzaindegi zerbitzua izango da. Hauek dira azken saioak.

2015EKO Udal Aurrekontuan zein proposamen sartu erabakitzeke bilerak egiten ari dira, auzoz auzo. Aste honetan egingo dira azken hiru saioak: gaur, Sorgintxulon; asteazkenean, Haur Eskolan; eta ostegunean, Biterin; denak, 19:00etan.

Bozkatzeko aukera zabalik dago azaroaren 7ra arte: etxean jasotako galdetegiak Biterin, kiroldegian edo udal txean entregatu daitezke, edo botoa internet bidez eman, www.hernani.net webgunean.

Azaroaren 19an azalduko da zein proposamen izan diren bozkatuenak, eta beraz, zein sartuko diren 2015eko aurrekontuetan.

Urumea ikastola, kanpainan Guztira, 33 proposamenen artean aukeratu daiteke, eta 10 aukeratu behar dira.

Urumea ikastolan, Gay Murreko patioa estaltzearen



Urumea ikastolan kanpaina egiten ari dira Gay Murreko patioa estaltzearen alde.

aldeko kanpaina egiten ari dira, eta bozkatzeko mahaiak jarri dituzte. Hala azaldu du zuzendaritzak: «Gay Mur da patio estalirik ez duen herriko eskola bakarra». Proposamen hau egiteak aurrekontu

oso hartuko luke; 500.000 euroak.

Boto gehien jasotzen dituzten proposamenak sartuko dira datorren urteko aurrekontuetan, baldintza hauek betez gero: 500.000€

horietatik gutxienez 300.000€ inbertsioetarako izango dira; 200.000€ gehienez gastu orokorretarako eta hauen artean gehienez 50.000€ urtero errepikatzeke izaera duten proposamenetara bideratzeko. ||

AITA ORKOLAGA

Meteorolgo hernaniarra gogoratzeko ekintzak

Hernanin jaio zen, 1863ko urriaren 13an, Juan Migel Orkologa Legarra, apaiz jesuita eta meteorologo aditua. 1914ko irailaren 22an hil zen Aita Borraska, eta bere omenez ekitaldi ugari antolatu dira.

HERNANIARRA zen Juan Migel Orkologa, edo Aita Borraska. Hil zela 100 urte bete dira, eta omendaldi moduan, hainbat ekintza antolatu ditu, gaurtik, AEMET meteorologia agentziak.

Erakusketa, gaurtik

Gaurtik azaroaren 9ra, erakusketa jarriko da Biterin,

18:00etatik 20:00etara. Bertan ikusi ahal izango dira meteorologian erabiltzen diren tresnak, Aita Orkologaren liburu eta artikulak, eta hainbat gertaeretakoa argazkiak.

Hitzaldia, etzi

Asteazkenean, berriz, *Aita Orkologa, oren aurka* hitzaldia

emango du Asun Urzainki Deustuko Unibertsitateko irakasleak. 19:30etan izango da, Biterin.

Pelikula eta kontzertuak

Datorren astean ekintza gehiago izango dira. Azaroaren 5ean, *La tormenta perfecta* filma jarriko dute Biterin, 19:30e-

tan, eta segidan tertulia eta mahai-ingurua egingo dira.

Azaroaren 9an, berriz, meza izango da San Joan Bataiatzailea parroki elizan, 12:00etan, Parrokiko abesbatzak lagunduta. Ondoren, Ozenki abesbatzak emango du Aita Orkologaren omenezko kontzertua. ||

UDALA

Sorgintxuloko sarrera itxia, gaur

Goizeko 09:30etatik 12:30etara itxi egingo da Sorgintxuloko sarrera, bertan dagoen zuhaitz zahar bat botatzeko lanak direla eta. Bai Galarretatik eta baita Urnieta aldetik datozen kotxeek ere, ezingo dute Sorgintxuloko bidea hartu. ||

AXKETA

Kontzertuak larunbatean

Axketa Mendi Taldeak antolatuta, kontzertuak emango dituzte larunbatean, 22:00etatik aurrera Kontrakantxa gaztetxean, Dirty Eyes, Eztanda eta Trifulka taldeek. Sarrera deialdekoa izango da, eta barrako kontsumizioetako dirua mendi taldea laguntzeko izango da. ||

HERNANIN MUSIK

Sarrerak salgai ostiralerako

Neighbor bikotea osatzen dute Maite Larburu hernaniarrak eta Josh Cheatham seatledarrak. Kontzertua emango dute ostiralean, 20:00etan Biterin, eta sarrerak salgai daude, 7 euroan. ||

TXANTXILLA

0367, sariduna

Txantxillako festak laguntzeko erriak saldu ziren, eta larunbatean egin zen zozketa: 0367 zenbakia da sariduna. Bestalde, musean Joxean eta Joxe izan ziren txapeldunak; Mañoli eta Joxe bigarrenak; eta Iñaki eta Joxan hirugarrenak. ||

dobEra
EUSKARA ELKARTEA

URUMEAKO
Kronika

KRONIKA-DOBERAKO LAGUNTZAILE KANPAINA

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

LAGUNTZA: ■ 6 € (18 urtetik beherakoak)

TELEFONOA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

■ 35 €

■ €

LAGUNTZA EMATEKO MODUAK:

1. K. K. zenbakia eman:
2. Dirua ingresatu (izen-abizenak jarri):
2095 5041 12 1062292601 (Kubabank) / 3035 0025 81 0250077672 (Laboralkutxa)
3. Doberako bulegoan eskura (Larramendi II, behe. Hernani)

* Ordainketa zatika egin nahi izanez gero, Doberan galdetu (943 33 27 99)

* Laguntzaile bezala izena emandakoan zuzenean Doberako Bazkide egingo zara.

* Jakinarazten dizugu, izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren xedera, harreman honetan dauden izaera pertsonaleko datuak Dobera Euskara Elkartearen arduraduntzat duen fitxategi elektronikoko batean daudela, helburu administratibotarako.

